



**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA,  
DIRULAGUNTZEN LEGEAREN 13.2 ARTIKULUAN  
ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAN  
JASOTAKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZ**

**ADIERAZPENA EGITEN DUEN PERTSONA**

Eskatzailearen izena eta bi abizenak		NAN	
Elkartea		IFK	
Kalea	Zk.	Solairua	Aldea
Posta-kodea	Herria	Lurraldea	
e-posta	Telefono zk.	Sakelakoaren zk.	

**ADIERAZPENA**

**AITORTZEN DUT**

Legez ordezkutzen dudan eta deialdi honetara aurkeztu den erakundea ez dagoela diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. atalean onuradun izateko ezarritako inolako debekutan sartuta.

Legez ordezkutzen dudan eta deialdi honetara aurkeztu den erakundeak ez duela zehapen administratiborik ez eta juridikorik sexu-arrazoiengatik bereizkeria egin izanaren ondorioz, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera debeku horrekin zehatutakoek ere.

Data	Sinadura

## ERANSKINA - Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikulua

**13.2.** Ezingo dira lege honetan araututako diru-laguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan egoera hauetakoren batean dauden pertsonak edo erakundeak, salbu eta diru-laguntzaren helburuagatik aukera hori diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan jasota badago:

- a)** Epai irmo bidez diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso dutenak.
- b)** Konkurtso boluntarioa adierazteko eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo direnak, konkurtsoan deklarata daudenak –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, epailearen esku-hartzearen menpe daudenak edo desgaituta daudenak Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, betiere konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-epealdia oraindik amaitu gabe egonik.
- c)** Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz kendu zaienak, errudun deklaratu dituztelako.
- d)** Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak, egoera hauetakoren batean badaude: Herri-administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean, eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean daudenak, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.
- e)** Indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera, zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak bete gabe dituztenak.
- f)** Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde batean dutenak.
- g)** Diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenak.
- h)** Ebazpen irmo bidez diru-laguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.
- i)** Ezingo dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan lege honen 11.3 artikuluan aurreikusitako taldeak, baldin eta haien kideetako batek aurreko zenbakian adierazitako debekuren bat badu.
- j)** Ezingo dute diru-laguntzarik jaso, halaber, erakunde eta enpresa hauek: haien buru dauden pertsonak edo beste egoera batzuk kontuan hartuta, aurretik debekua jaso duten erakunde eta enpresen jarraipen izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek edo erakunde edo enpresa haien aldaketa, bat-egite edo ondorengo izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek.